

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

## HISTORIA

Aintzinako dokumentu batzuetan Ermuari "Villa Ferrera" goitizenez deitzen zitaion, zalantzarik gabe, bertan burdina lantzeko izan den tradizioagatik, Deba Beheko Bailara osoak ere berea duen ezaugarria.

Inguru mugatarra eta iskanbilatsua izanik, banderizoen borroken eskenatoki izan zen, eta horren ondorioz, defentsarako dorre eta harresiak eraiki behar izan zituzten. Iturrizak, berak idatzitako "Bienandanzas" deritzon lanean esaten du 1968ko maiatzean Diego Gómez de Sarmiento Kondea sutsu sartu zela Zaldibarko ganboatarrak akatzeko asmoz, baina horiek sua eman zieten beraien etxeei eta Ermuko Hirira etorri ziren euren burua babestera.


Bake garaietan adiskidetasun harremanetarako eta merkatal joan-etorrietarako bideak egin ziren. Horrela, antzinatik igarotzen zen Ermutik Bizkaia eta Gipuzkoa lotzen zituen errepide bat, zein herriaren aurrerapenaren arrazoi izan baitzen.

Erromes xakoboen igarolekua izanik, Irundik Itziarrera kostaldetik zetorren bidatzaren barne zegoen Ermua, bertan bidea bitan zatitzen zelarik: bata Markina eta Zenarrutza aldera zihoan, eta handik Gernika eta Bilbora; besteak, aldiz, kostaldetik jarraitzen zuten Lekeitioraino.

Bide-bertsio hau, bideak XI eta XII. mendeetan Santiago de Compostelatik Orreagara izan zuen aldaki ugarietako bat dena, Ermuko eliza Santixau Deunaren omenez eraikia izatearen errealitatean frogatzen da, baita zenbait jauretxetako fatxadan ikus daitezkeen harmarrietan agertzen diren erromes malkorretan ere.

Baina, noiz eratu zen Ermua? Ermuaren eraketa jasotzen duen jatorrizko eskuizkribua ezezaguna denez, inkognita horrekin uzten gaitu. Hala ere Juan Infantearen sendotzako eskutitzak, 1372ko urtarrilaren 20an Burgosen egiletsitakoa, Ermua hori baino lehenagokoa dela argi eta garbi frogatzen du. Historiagileek aurreko gizaldiaren azkenaldean kokatzen dute, Lope jaunaren edo López de Harotar Diego jaunaren jaurgoan, Durangoko Tabira Hiria eratu zen garaian hain zuzen.

1732ko sendotzak hiri honi ondorengo emakidak berritu zizkion: Logroñoko Forua, Bizkaiko beste hiriei bezala; auzoko elizateekin hauzi etengabeak sortarazi zituen lurmugen zehaztapena; larunbatetan asteroko merkata egiteko baimena; ibiltari eta mando-sailentzat, Pagazubiagako errepidetik barik, Ermukotik igarotzeko derrigortasuna;



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

trafikoko zergak ordaintzeko salbuezpena; merkataritzarako askatasuna, etab... Dokumentuan XIV. gizaldian Ermuko hirian zeuden errotak eta burdin-olak ere aipatzen dira.

Ermuko Hiriak, Durangoko Merindadearen barnean dagoen Bizkaiko foru antolakuntzan kokatua, hirien artean 12. jarlekua, ahotsa eta botua zituen Gernikako Batzar Nagusietan.

XVI. gizaldian metalezko produktuekin Europako Iparralderantz edo Sevillako portutik Indiarantz egiten zen esportazioan parte hartu zuen bere burdin-olekin. Bustintzatar Cristobal eta Mallestar Pedro bezalako merkataria Ermuarrak burdina eta iltzeteria partidak bermatzen zituzten Burgoseko kontsulatuan. Gizaldi berean Bustintzako Domingo eta Santiagok Bizkaiko erlikitegi nabarmenatarikoa bidali zuten Ermuko elizara.


Denboraldi horretan, Bizkaiko Jaurgoaren agintaritza nagusirako agintarien hauteskunde orokorretan, Ermuak batzuetan oñaziarren alde ematen zuen bere botoa, eta besteetan alderdi ganboatarraren alde.

Itsasontzi holandarren eraso bat izan zitekeela eta, Bizkaiko Jaurgoaren Batzar Nagusiak 1624eko apirilaren 17an Jaurgoko portu eta kostaldea indartzea, eta Bizkaiko hiri eta elizate guztietan kapitainak eta ofizialak izendatzea erabaki zuen. Ermurako Ugarte Zaldibar eta Malleatar Gonzalo jauna izan zen izendatua kapitain, eta erabaki horrek Jaurgoarekin auzi bat sortarazi zuen zeren aurretiaz ezarrita zegoen, gudarik suertatuko balitz, alkateak eurak izan behar zirela kapitain, urte bereko azaroan Felipe IV.ak izendapen hori kontraerabakitzea ekarri zuelarik.

1637. urtean, Frantziak eta Espainiak garai horretan elkarrekin zuten gudara bidaltzeko, Ermuak 6 gizon jarri zituen, Bizkaian 1.000 gizonetako talde bat sortu nahi baitzen.

1639ko apirilaren 20an, itsasontzi frantziarren eraso posible batetatik kostaldea defendatzeko Bizkaiko Jaurgoak erabaki zuen, gudadeirik izanez gero, Jaurgoaren barneko herrietako jende armatuak nora joan behar ziren finkatzea. Ermutarrak Ondarroara joan beharra zeukaten laguntzera.

1719an, Gipuzkoako zenbait toki frantziarrek okupatu zituztelarik, Bizkaiko Jaurgoak Ermua, Berriatu, Etxebarri, Xemein eta Markinako herritarrei agindu zien Ondarroako portua eta Gipuzkoako Jaurgoaren muga indartzera joan zitezela.



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

Konbentzio Guda garaian zenbait operazio egin ziren Ermuan. Horrela, 1794eko abuztuaren 19an, Ermuko soldaduak Durangora joan ziren Ermua-Elorrio inguran defendatu beharreko herria egokitu ziezaieten. 1794eko abuztuaren 27an, frantziarren inbasioaren ondorioz sorturiko sute batek Ermuko hainbat eraikin suntsitu zituen.

Ermuko industriarik oinarrizkoena giltzak eta armentzako kutxak lantzea zen, arma horien kainoiak ere herrian bertan lantzen zirelarik. Aipaturikoen kalitatea garai hartako onenen parekoa zen, 1794eko sutearen ondorioz beherakada gogor bat izan bazuen ere.

Baina Ermuarentzat gizaldirik handiena XVIII.a izan zen. Gaur egun oraindik ere dorre barroko galantak (1738), eta Valdespinako jauregiaren kupulak bertako monumentu artistikorik bikaiena osatzen dute, zein Orbe familiak gizaldi honetan eta hurretangoan izan zuen indar-hartzearen ezaugarri izan baitziren. Gizaldi honetan (1752) Ermuak Inazio Deunaren urteroko azoka lortu zuen, eta gizaldi beraren azkenaldean inbasio frantziarraren trajedia ezagutu zuen, herri guztia hondatu eta sutan jarri zuelarik.


XIX. gizaldian Valdespinarrek Bizkaiko bizitzaren lehen maila bete zuten berriro ere. Orbe eta Eliotar Jose Mari jauna, "Ermuko Mantxueloa" zeritzona eta Orbe eta Mariacatar Juan Nepomuceno arazo karlistaren buruzagi egin ziren, eta 1836an Bilboko setioetan parte hartu zuten. Bigarren gerrate karlistan, Orbetar Kandido eta Jose Mari anaiek eta Ayalatar Gaytanek Bilboko setio berrian parte hartu zuten (1874); eta zuten adorea, izpiritua eta prestakuntza militarra erakutsi zuten, baita Karlos VII.ari zioten leialtasuna ere. Ezin daiteke Ermuaren historia modernoa egin Valdespinatarrak kontutan hartu gabe.

### AINTZINATASUNA

Agiri sinesterazgarririk ez dagoenez, ezinezkoa da Ermuko Hiriaren sortze data zein den zehatz-mehatz jakitea. Bata bestearen ondoko eraso militarrek erre eta suntsitu egin zuten herria, inongo agiriren aztarnak desagertaraziz.

Juan Infanteak 1372ko urtarrilaren 20an Burgosen emaniko herriaren sorrera eskutitzetik abiatuz honako ondorioa atera daiteke: ez dela beren berez esandako sorrera bat, baizik eta lehenago hartutako eskubide eta askatasunen berrespena:

*"Jainkoaren eta bere ama, Ama Birginaren izenean, bera, bere erruki santuagatik, gure abokatu izan dadila. Hala bedi. Jakin bezate eskubide hau ikusi eta entzungo duten*



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA


BIZKAIA

*guztiek, nola nik, Juan Infante honek, Enrike Errege jaun goren eta prestuaren lehenengo seme eta ondorengo, Lara eta Bizkaikoa naizenak, ezagutu, berretsi eta ongi egiten dudala, eta zuen mesedetan nire Ermuko Hiriko basailuok, hala bertan bizi zaretenok nola etorkizunean biziko direnak, eta zuei mesede egiten dizuet aipaturiko hirikook gaurko egunera arte izan dituzuen eskubide, askatasun, erabilera egoki eta ohiturak berresten ditudalarik. Nire eskubidea hau izan da, eta Lehenagoko Jaunen eskubideak ere badituzue, hala Bizkaiko Erregearena nola beste Printze eta Jaunena, eta eskubide horien berrespenean oinarri hartuz, neure egitekoa delako, eman ez gainera, mesede eta hobekuntza egiten dizuet ondoren adierazitako eran...*"

Iturrizaren ustez, sortze datarik seguruenak 1279 urtearen inguruan dago, López de Harotar Diegoren garaian, Durangoko Tabira hiriaren sorrerarekin estuki lotua dagoelarik.

García Péreztar Agustin jaunak ez du horrenbeste zehazten, "Euskal Herriaren Alde" deritzan argitaldian honakoa esaten digu: "Sorrera ez da 1239 baino aurreragokoa eta ezta 1280 baino lehenagokoa ere, López de Harotar Diegoren garaian kokatu daiteke".

"Euskal Herriko Hiztegi Historiko-Geografikoan", González Arnautar D.V. jaunak 1802. urtean Madrilan argitaratua, honakoa esaten da: "ERMUA, Bizkaiko Jaurgoko eta Calahorrako Apezpikutzako hiria; bere izena Heremuba hitzaren laburtzapenetik dator. Hitz horrek gazteleraz "páramo" edo "yermo" esan nahi du. Mendi altuz inguratutako karkaba batean kokatuta dago, erreka baten iparraldean. Errekasto hori beste bik osatzen dute: bata Oiz mendi-zerratik behera; eta bestea Urko menditik behera etorritik, heretik hurbil bat egiten dute, eta biak batera Eibartik zehar Deba ibairaino iristen dira. E eta H-tik aipaturiko Eibar hiriarekin eta Zalduako elizatearekin hurrenez hurren mugakide da, eta M eta I-tik Mallabiako elizatearekin, bertan izan baitzen sortua. Bilbotik zazpi legoatara dago, Durangotik bi legoatara eta Elorriotik ere bi legoatara. Ezezaguna da noiz jendeztatu zen, ez baita ezagutzen noiz izan zen sortua, baina Juan Infanteak 1372ko urtarilaren 20an Burgosen egindako agiri batean esaten du bertako biztanleek lehenagoko Jaunen garaiko beste arbaso batzuk zituztela, "hala Bizkaikoak izan ziren erregeen, nola beste printze eta Jaunen garaikoak"; eta ondorioz, bertako lehenengo jendeztapena garai hura baino askoz aurreragokoa izan dela dirudi, Díaz de Harotar Lope jaunaren garaikoa hain zuzen, zein 1280 urtearen inguruan bizi izan baitzen. Juan Infante jaunaren eskubide hori dela eta, ordurako bazituen eskubideak berretsi zitzaizkion, eta Logroñoko Foruarekin eskubide horiei beste batzuk erantsi zitzaizkien. Eta mugak adierazi ziren, horiei buruz




## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

Zalduako Errepublikarekin etengabeko auziak izan bazituen ere, 1473ko maiatzaren 7an egiletsitako salerosketa idatzi baten bidez, eta Duragoko Merindadearekin eginiko beste batez bukatu ziren, azken horren gain Borika eta Urkizu lizentziatuek 1586ko urriaren 30ean emaniko epai arbitrarioa erori zelarik. Hiri hori Alkate bat, bi Jaurleri, bi Diputatu, Sindiko bat eta Ordezkarri batez osaturiko Udal batek gobernatzen du. Alkateak ohizko eskumena dauka, Valladoliden bizi den Bizkaiko Epaille Nagusiarengana, edo bestela hirian bertan dagoen korregidorearengana joaz, beronek ere alde zurretiko ezagutza baitu lehen instantzian, foru eskubidez baita Jaurgoko hiri guztietako alkate nagusi. Gernikako Batzarrean hiri guztien arteko 12. botua eta jarlekua dauka Infantzoiko errepublika guztien ondoren. Duen kontribuzioa 38 eta erdi fogeratakoa da, eta biztanlegoa 357 armatakoa. Lehen handiagoa zen baina frantziarrek suntsitu eta sutan jarri zuten 1794eko abuztuaren 27an, eta sute horren ondorioz, zeuden 84 etxeetatik zortzik bakarrik iraun zuten zutik. Asko berreraiki dira, horien artean Udaletxea, non pisu publikoa eta harategia baitaude. Hiri barnean, kale bi eta bi saltoki dituen kale estu batez osatua, bizi da auzokideen gehiengoa, eta bertatik kanpo zazpi baserri baino ez daude, nekazarietako bizileku direnak. Hirian beste 18 daude eta gainerako auzokideek giltzak eta armentzako kutxak egiten dituzte, arma horien kainoiak Eibarren, Soraluzen eta Gipuzkoako beste zenbait herritan lantzen direlarik. Lantegi hori asko makaldu da, maisu eta ofizial ugari beste toki batera joan direlako. Hasierako ikasketak egiteko eskola eta zirujau gaitua daude, iturri eder bi ere bai, baita harrizko 6 zubi, burdin-ola bat eta 8 errota ere. Santixau Apostoluaren izenean eraikitako eliza dauka, 1602an berreraikia, eta elizbarruti horrek hiriko mugetatik kanpo dauden eta Zalduako eremuari dagozkion 11 baserri ditu barnean. Hiria Patrona izenez eraberritu zen arte, eliza horren zerbitzura ogi osoko eliz-opidetu bi eta ogi erdiko bat daude, sutea izan ondoren beste eliz-opide erdi bat kendu zelarik baina eliz-opidetuen taldea da eliz-opidea aurkezten duena, lubarren hautatuenak eta hamarren guztiak jasoz gainerako herenarekin batera; beste bat lantegiari dagokio eta, Erregea buruzagi den aldetik, azkena Erregeari, zein elizgizonen taldeari 1798ko ekainaren 4etik sei urterako utzia dion. Hiriaren eremu barrutian hiru ermita daude, Lorentzo Deuna, Pelayo Deuna eta Sebastián eta Antonio Deunen izenean eraikiak. Beste batek Zalduako eremuan du bere elizbarrutia, Pedro Deunaren izenean eraikia. 1594ean sortutako moja dominikarren komentua bat egon zen, baina 1700ean Elorriora joan ziren. 1572tik abere handien azoka ospatzen da Loiolako Inazio Deunaren egunean eta hurrengo domekan.”

Hiriari bere sorreran eman zitzaizkion lurren mugak honakoak dira: “Elorreagako gurutzarrian hasi errekastotik gora, Pagazubitik igaro eta hemendik errepidea zuzen Areitioko Andra Mari Ermitaraino, eta hortik behera Mailagaraiko erreka, eta bertatik



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

*behera teilategietatik eta Eztakonatik igaroz datorren errekaraino; edo aipaturiko Eztakonatik Arteagara, eta Arteaga horretatik Berano Agirrera doan errekarara, eta bidea jarraituz Beranogoitira, hortik azpian dagoen errekarara, Astorregitik gora mendibizkarreraino, eta aipaturiko mendigainetik Undiogamara, eta urak isurtzen diren lekutik zuzen Urkogainako mendi-zerrara, eta Urkogaina horretako hegaletatik behera Lexarretako urak isurtzen diren tokira, eta urak isurtzen diren Lexarretatik -hegaletatik-behera Pagonabarraga eta Kareagara, eta bertatik zuzen Olaerreagako gurutzarriraino”*

Muga horiek arazo ugari ekarri zioten Ermuari lur horien bereizgoak ukitutako elizateekin, alegia, Mallabia eta Zaldibarrekin. Iturrizak dioenez iskanbila horiek 348 urte baino gehiago iraun zuten, eta 1453ko maiatzaren 7an Berrizeko Juan Deunaren hilerrian egiletsitako salerosketa idatzi baten jasotzen denez *“Zalduako Errepublikak ezin zion Arrola, Muñikola, Albisu, Dolaramaiera, Idoizarraga eta Egoko Ibiud mendietako lur bat bera ere saldu edo erabiltzeko laga Elgetako hiriari; eta aldiz, Ermukoek beraien abereak bertara eraman zitzaketen larrera, uzta piezak egin, eta zuhaitzen enbor, buru, adar eta ezpal lehorrak erabili, haritz, lizar eta gorosti berdeenak izan ezik”.*


Baina, Iturrizak dioenez, mugei buruzko auziak ez ziren horretan gelditu zeren 1779ko azaroaren 6an Durangoko Merindadearen Gerediagako Batzarrean oroit-agiri bat irakurri zen Zaldibarko Elizateak Ermuarekin zituen auzien berri emanez.

### **BESTE EGIATAPEN BATZUK**

Ermuko Hiriak izan dituen foruen egiaztapenak hainbat izan dira. Zaharrenetarikoen artean 1372an Juan jaunak Burgosen, 1393an Enrike III. Madriden eta 1415ean Juan II. Valladoliden emanikoak aipa daitezke.

Bertako foruen azken egiaztapen ezaguna 1483ko irailaren 19an Isabel Katolikak Durangon egina da. Azken honen datu guztiak Udalak ditu gordeta, era honetara gertatu zirelarik:

Erregina Durangora sartzea larunbaterako pentsatua zegoen, eta harrera egiteko hirietako bi mila gizon inguru Orobia ateratzea ezarri zen, baina Gernikara joan ordez bere etxazain nagusia bidali zuenez, Bilbotik Durangora abiatu zen. Orduz kanpo etorri zen, iadanik jendea bere etxeetara itzulita zegoenean, eta Elorrio eta Ermuko ordezkariirik han izan gabe egin zitzaion harrera, ordezkari horiek bertan egon behar baitzuten Erregina adierazitako egunean etorri izan balitz.



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

Gazteleraz idatzitako testu zahar batean honako hitz hauek jasotzen dira:

*“...e allí venía su Alteza una linda Magestad que nuestro Señor Jesucristo criara por su maravillosa forma de hermosura e nobleza e virtuosa iuntada de toda virtud; allí benía con su Alteza el Duque de Villafermosa...”*

Erregina hospitala eta Madalena Elizaren arteko toki batera, herriaren sarreran dagoena, iritsi zenean, Durangoko lurreko Alkateorde zen Zaldibartar Fernandok, Durangaldeko autoritate guztiekin batera, Durangaldeko erabilerak, ohitura eta eskubideei zin egiteko eskatu zion Erreginari, eta berak erabat gogoko zuela erantzun zuen. Eskuak musukatu zizkieten eta Durangaldeko lur eta hiriak gorde egingo zirela zin egin zuten, baita bertako arbasoen eskubideak, erabilerak eta ohiturak ere.

Musika akordeen artean zumardiko zubira iritsi ziren, non Durango eta Elorrioko hirien zina egin baitzuten, baina Ermuari dagokionez zerbait gertatu omen zen, zeren zin egin bazuen ere, aparteko oharrean honakoa dio: “Bere aurrean belauniko jarritako alkateek berriro eskaturik”. Ospakizuna bukatu ondoren, hiriko giltzak eman zitzaizkion.

### KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Ermuko hiriak 6,49 km karratuko azalera du.

Geografikoki Bizkaiko ekialdeko muturrrean kokatuta dago, Gipuzkoako lurraldearekin muga eginez, lehen herri gipuzkoarreraino, Eibarreraino, 2,5 km-ko distantzia dagoelarik. Ermutik Bilbora 42 km daude, Donostiara eta Durangora 67 eta 14 km, hurrenez hurren.

Ermua Ibaizabal ibaiaren sakan luzeari jarraipena ematen dion aran estuaren parte da, nahiz eta Ego erreka bitartez Deba bailararen barne dagoen, ekialderantz jeisten den. Ermuko lurren mugak, iparralde eta mendebaldetik, Mallabiak finkatzen ditu eta hegoalde eta mendebaldetik, berriz, Zaldibarrek eta Eibarrek.

Ermua sakan batean kokatuta dagoenez gero, zenbait mendik inguratzen dute; horien artean eta hegoaldetik Elgetako goi lurak daude, eta iparraldetik Urko (791 m), Ongarai eta Ureta mendixkak. Azken mendixka hauen gailurretan jaiotzen diren Ego, Rekalde eta Urtia errekek herrian bertan bat egiten dute, hirigunea zeharkatu ondoren Eibarreruntz jarraituz eta Maltzagan beraien urak isuriz Deba ibaira.

Lurrazpia epe sekundarioan sorturiko formazio geologikoa da, goi-kretazikoko



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

azpizatiketakoa hain zuzen ere, eta lur horiek duten itsasoko jatorriarengatik bigarren mailako lur kalizak dira. Lurrazpi honetan izan daitezkeen mineralak zinka eta beruna dira.

Gaur egun ere kaliza harriko harrobia dago, zein eraikuntza industrian erabiltzen baita. Harrobiak formazio oso ezberdina du, pinuz landatuta eta josita dauden erabateko maldak dituelarik. Pinu horiek egur bihurtzen dira ondoren industrian erabiltzeko.

Jovellanosek 1791. urtean Euskal Herrian zehar egindako bidaian diario batzuk idatzi zituen, bertan Ermuari buruz honakoa adierazten zuelarik: "Bi legoa t'erdira Ermua deritzon tokia dago, Larreategitarren antzinako orubea; familia horren jauregi handia erakutsi ziguten; leku eroso dirudi eta baserri ederra du. Arma entpresan lan egiten duen lehenengoa da eta, gero esango den bezala, bertan baino ez dira egiten. Inguruetan landara gehiago daude, horietako lur asko arbia landatzeko prest dago eta beste zenbait landatuta dago dagoeneko, landa batean eta artoaren landare samurrarekin aldizkatuz arbia zuloetan nola landatzen zuten ikusi genuen, zein zuhain bezala erabiliko den; ereintzarako erabiltzen den lur hau asko zaintzen dute, ondoren garia landatzen baita bertan. Azarotik aurrera, arbiak landarak ematen dituenean, ganaduaren elikadurarako erabiltzen da, behin negua sartu ondoren landarak baizik arbiak eta horien sustraiak erabiliz animalien janari gisa, landare hau ongi landatuz gero asko hazten omen da 24 libratako bat jaso dutela ziurtatu baitidate".


Letonak dio (Durangoko Antonio jaunak) "alfalfa eta astorkia ere landatzen direla, eta azken bolada honetan abundantzia eta miseria deritzon beste landara bat ere bai, zein Ricardos jeneralaren eraginez hedatu zen, bere lorategian landatu baitzuen. Honela, segaz mozten den zelairik ez duten bizkaitarrek ordezkoko elikagai artifilkielez hazten dituzte ganaduak, mendi zabaletan amankomunak diren zelaiak ere larre-belarretarako dituztelarik baita".

Ermuko klima nahiko hezea da, medintsua eta, sarri euria egiten duen lurra denez gero (1,400 litro m<sup>2</sup> inguru urtero) urteko hotz-beroaren bataz-bestekoa 13,5º gradu zentigradutakoa da, baldintza klimatiko horiek bere lurrek ezaugarri duten kolore berdea ematen diotelarik. Ermua 169 metrotara dago itsasoaren gainetik. Aintzina San Pelaio iturriko urak nolabaiteko ospea izan zuten, sarna sendatzeko tasunak zituztela esaten baitzuten, bertan sendaketarako bainuetxea izan zela dirudi.

### BIZTANLERIA

Ermua, Bizkaiko herrietatik, 60. hamarkadan hazkunderik handiena izan zuena,





## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

eta biztanleria dentsitaterik handiena daukana da, 2.758 biztanle/km<sup>2</sup>ko, Durangaldeko beste herriena baino hamar aldiz handiagoa. Hazkunde izugarri honen arrazoiak bi dira nagusiki: batetik, Eibarko industri gune garrantzitsuaren ondo-ondoan dagoelako eta horren eraginez, Ermuko langilegoaren gehiengoak Eibarren egiten du lan; eta bestetik komunikabide eta garraioetarako baldintza aproposak izan dituelako. Komunikabideei dagokienez, udalerrria Bilbo eta Donostia elkartzen dituen trenbideak, 634 errepide nazionalak eta Bilbo-Behobia autopistak zeharkatua dago, azken honek herrian bertan sartu eta irtetzeko peajea duelarik.

Felipe IV. erregeak Bizkaiko Jaurgoari galeoi bi egiteko eskatu zion, eta lan hori gauzatzeko asmoz 1630ean egindako banaketa baten ondorioz jakin daiteke Ermuko hiriak urte horretan 34 tximinia zituela.

1704ean Ermuak 52 tximinia zeuzkan.

1860. urtean Ermuak 632 biztanle zituen eta urte horretatik aurrera biztanlegoaren hazkundera honakoa izan da:


1900	698	1940	1.277	1980	18.860
1910	871	1950	1.725	1990	18.076
1920	1.001	1960	3.029	1994	17.769
1930	1.046	1970	14.651		

Hiriko ekonomi jarduera bigarren sektorean kokatua dago: burdin-ola, estanzazioa eta eraikuntza mekanikoak, automobil, tresna eta tresneriaren azpisektorearen osagai direnak. Nekazaritza sektoreak nortasun eskaxa dauka, eta hirugarren sektorea oinarritzko zerbitzuen horniketan dihardu: elikadura, jantziak, etxeko gauzak, etab...

Ekonomi sektoreka, biztanlegoaren %0,6a lehenengo sektorean ari da, %68,4a industrian, %6,5a eraikuntzan eta %24,5a zerbitzuetan.

### IZEN OSPETSUAK

Letra eta armetan ospetsuak izan diren gizon askoren jaioterri dugu Ermua. Zalantzarik gabe pertsonairik ezagunena Orbe eta Larreategitar Andrés Agustín izan zen (1672-1740), Valladolideko Santa Kruz Nagusiko kapelaua eta bertako Unibertsitatean



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

Dekretalen irakasle, Bartzelonako Apezpiku (1720), Valentziako Artzapezpiku (1725), Gaztelako Kontseiluko Buru (1727-33), Inkisidore Nagusi eta Nuntzio Apostolikoa. Felipe V.ak Valdespinako Markes titulu gaztelarra eman zion bere loba Orbe eta Zarauztar Andrés Agustini eta berarentzat eraiki zuen jauregia. Herriko elizan lurperatuta dago bere kardenal atributuekin.

Aipatzekoa da baita ere Orbetar Pedro jauna, Zaragozako inkisidorea; Arandatar Frantzisko jauna, Toledoko Artzadiakonua Eizagirretar Mateo jauna, 1775ean Panamako Santa Anako lehenengo Kondea; Orbe eta Larreategitar Andrés jauna eta Orbe eta Eliotar Jose Mari jauna, Valdespinako Markesa, 1825-1827 urteetan Diputatu Nagusi izana, Santixau Ordenako zalduna eta 1883ko altxamenduko pertsonarik kementsu, adoretu eta eragileena.

### IZENA

Ermua, Ermva, Hermua, Villa Ferrera de Hermua, Villa Terrera de Hermua. Izen guzti hauekin deitua izan da hiria egon dauden eta ondoren transkribatutako agirietan.

Ermuaren izena, aurreko gizaldira arte hatxez idatzia (Hermua), Iturrizak dioenez "Heremuba" hitzaren laburtzapena dugu, gazteleraz "yermo" edo "páramo" esan nahi duena. Aipaturikoaren froga 1372ko hiriaren sortze-agiria bera dugu, bertan honakoa irakur daitekeelarik: *"Hermuko biztanleek, beraien eremuan biztanlerik ez duen lur idorrik aurkituz gero, landu dezatela"*.

Beraz, aipaturiko lur idor edo biztanlerik gabekoak ugariak ziren, eta ondorioz, hiria sortu zenean, Mallabia eta Zalduako elizateenak ziren lur horiei aipamena eginez jarri zitzaion herriari izena.

*"Ermuko Hiriari Villa Ferrera deitzen zaio aintzinako agirietan, eta ez dakigu izen hori oroitezinezko garaietatik bertan dagoen burdinaren industrietatik datorkion"* esaten du Delmasek bere Bizkaiko Jaurgoaren Gidan.

Izenaren forma hori logikoa dirudi zeren villa ferrera "villa del hierro"tik eratorria da izan ere, eta begibistakoa da Ermuan budin-olak eta metal horrekin egindako gauzak (armak, giltzak etab...) Delmasek ongi dioen bezala, oroitezinezko garaietakoak direla.

Bestalde, "Euskalerrriaren Alde" aldizkariak (1922) Villa Terrera deitzen dio izen horren jatorriaz inolako azalpenik eman gabe. Akats tipografikoa badirudi ere, ez da hori, testuan behin eta berriz aipatzen baita *"el origen de Ermua o Villa Terrera de Ermua..."*



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

Ermuak goitzen bat izan baldin badu, "terrera" edo sinesgarriagoa den "ferrera" herriko jendeak eman diona izan da, ondoan daukagun Eibarri "villa armera" deitzen diogun bezalaxe, izen hori hiriko izenen artean ofizialki inon agertzen ez bada ere.

## BESTE DATU BATZUK

### Harmarria

Brontze horizkoa eta hiru zatitan banatua. Ezkerreko zatian Gernikako Arbola kanpora begira eta horizontalki gurutzatuta dauden bi otso dituela, otsoak beltzak dira eta gizenduak daude, ahoan bi bildots odoleztaturik dituzte, guztia zilarrezko hondoan dagoelarik; eskuinean eta goiko aldean urre koloreko hondoarekin zilarrezko puntak behera begira dituen hilargi erdi bat, eta azpikaldean hilargi erdiaren forma duen kate bat, bakoitzak sei punta dituen izar perpendikular birekin, biak brontzezkoak eta zilar koloreko hondoarekin. Goikaldean harmarriari bukaera emanez, itsas-maskor bat gurutze batekin.

### Ikurriña

Ermua Hiriko ikurriña gorria da, eta hiriko harmarria dauka brodatua, duen brodatuaren barne, erabilitako koloreak nabarmenduz. Kolore horiek heraldikan aipatutakoekin guztiz bat datoz; azpikaldean eta urrez idatzita honako inskripzioa darama: "*Ilmo. Ayuntamiento de la Villa de Ermua*".

Ikurrin hori da Udaleko Udal Batzak ospakizun ofizialetan erabiltzen duena, zinegotzi batek eramaten duelarik.


Kalitate oneneko materialekin eta urrezko trentzaz egina dago. Zutoihal itxurako ziriak dituela, masta kromatu bati lotua dago, hiriko armariaren ziluetan batez bukatuak.

## MONUMENTUAK

### Valdespinako Jauregia

Eraikiera Barrokoa du. Joseph de Zuaznávar arkitektuak eraiki zuen XVIII. mendearen erdialdean. Hiriaren alde zaharrean kokatua dago, elizaren parean, jauregiaren izena daraman kalean lerrotatua, eta aipaturiko kalea eta Ego ibaiaren artean.

Jauregiaren jatorria bertako familiaren mezenasgoan oinarritua dago, Valentziako Artzapezpiku eta inkisidore nagusi izan zen Orbe eta Larreategitar Andrésen familian,



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

XVIII. gizaldiaren lehenengo herenean pertsonai eraginkorra izana.

Hiru solairu eta ganbara bat dituen eraikin handi bat da eta gutxi gora-behera karratua den lur-sail batean eraikia dago. Espazioari dagokionez, eraztun bizigarri batek inguratzen duen eskailera-begi handi batez egituratua dago. Erdiko eskailera-begi hori silarrizko hormetan azaleztatua dagoen eskailera-kaxa nobleari dagokio, eta petxina gainean dagoen kupula batez estalia dago, eta hori, aldiberean, linterna batez.

Irudi honen ingurunea, egokiro osatzen dute jauregiko gelek, lau fatxadetara dauden egongela zabalak.

Fatxada nagusia Bizkaian izan den arkitektura barrokorik ikusgarriena dugu. Fatxada horretako kantonerak, beraien erdialdean, Orbe eta Larreategitarren armak errepikaturik dituen izkina-harmarri bat daukate. Harmarri horrek bi zati ditu: batean bi otso zuhaitzera herpekari daudela, eta bestean dragoia, harmarriaren azpian Ave Maria irakur daitekeelarik.

Valdespinako kupulak, eraikina kanpokaldetik hobeto definitzen duen elementua, elizako kanpandorrearen forma beraiek ditu.

Hasiera batean bizileku gisa zuen funtzioa aldatua izan da udalaren egoitzak bere baitan izateko, eta gaur egunean Ermua Hiriko Udala dago bertan kokatua.


### **Lobiano Jauregia**

XVI. gizaldian eraikia. Bizkaiak Berbizkundeko egoitz-arkitekturari egin dion aportaziorik garrantzitsuena da. Eragilea Lobianotar Francisco izan zen.

Angeluzuzendun planta daukan eraikina da, silarriz eta harlanduz aparejatua, inpostazko plaka bidez banatzen diren altura bitan kaleratzen da. Inpostazko plaka horiek frontoiz eta zutabe artean dagoen sarrera batez estalitako bao dintelatu batek zulatuak daude, sarrera gainean balkoi bat, eta bere ertzetan kuxindura plakak. Aurreko fatxadan Orbe eta Larreategitarren harmarria. Eguerdi aldera moldura aneretuak dituen puntu erdiko arkuen "loggia" bat erakusten du.

Aipagarriena sarrera-kasetoizko dekorazio aberatsa eta kultua dugu, heroien irudiak eta Carlos V.aren erara jotako Scevolaren bertsio harrigarri bat duela.

Beheko solairuak platereraren hornidura motiboak ditu fatxadan.



## AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

### Santixau Apostoluaren Eliza


XVI. gizaldian izan zen eraikia eta 1602an eraberritua. Bizkaian dugun Berbizkundeko elizarik ereduizkoena da. Kanpandorrea txurrigereran berreraiki zen 1738an. Elizaren berreraiketako gasturik gehiena Orbe eta Larreategitar Andresek, artzapezpiku inkisioreak, ordaindu zuen.

Elizak angeluzuzendun nabe bakarra du, nerbioak dituen bobeda bat daukalarik. Erretablo nagusia barrokoa da, erdian Jesukristo, eta Pedro eta Pablo deunak ere agertzen direla; goiko aldean elizako lau doktore, Ama Birjinaren koroapena eta Trinitatea. Gainerako aldareak Ana Donearen, Agurtzane Ama Birjinaren, Jesukristo Santuaren, Jose Deunaren, eta Purgatorioko Arimen izenean eraikiak daude.

Balaustredun koru azpian nerbioak dituen bobeda bat eta kapera bi daude: bata Ama Naigabetsuarena, non Orbetarren harmarria baitagoen; eta bestea Anunziazioarena, harmarri bera eta jaspeko hilobi bat dituela, hilobi horren gainean Orbe Artzapezpikuaren irudia belauniko dago.

### TELEFONO INTERESGARRIAK

Ermuko anbulategia	174450
Larrialdiak	461111
Eibarko anbulategia	113646
Gizarte-segurantzako anbulantzia	463333
Aguas del Norte	174758
Ermuko Udaletxea	176322
Merkatarien Elkarte	174147
Suhiltzaileak Durangon	94-6812395
Larrialdiak	94-6811141
Batzokia	173837
Herriko Etxea	171047
Abade Etxea	170488
Galiziar Zentrua	170047
Castilla-Leon Zentrua	172715
Andaluziar Zentrua	176104



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUKO HIRIKO UDALA

BIZKAIA

Ertzantzaren Ertzainetxea (Eibar)	114080
Gurutz Gorria Ermuan	171717
Gurutz Gorria (Zentrala)	222222
Postetxea	171209
E.N.A. (Eibar)	110666
Lurperatzailea Ermuan	171776
Eusko Trenbideak Eibarren	120546
Alberdi Botika	170097
Aranburu Botika	172666
Cortina Botika	171754
Ibarrondo Botika	170899
Ugarte Botika	170526
Hermes Hileta-zerbitzua	170456
Santa Lucia Hileta-zerbitzua	111095
Mugika Hileta-zerbitzua	170994
Garabia Ermuan	908-874100
Guardia Zibila Durangon	946-811116
Basurtuko Hospitala	94-4416988
Cruceseko Hospotila	94-4903100
Mendaroko Hospitala	756264
Galdakaoko Hospitala	94-4571557
Nagusien Etxea	174417
Arrate Hotela	117242
Iberdrola Durangon	94-6810658
Larrialdiak (Bilbo)	94-4165300
Igualatorioa Eibarren	110414
Indartu	172126
Inema Ermuan	176148
Bake epaitegia	176233
Trafiko-Buruzagitza Probintziala Bilbon	94-4421300
Deba Beheko Mankomunitatea	700799



**AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA**

*ERMUKO HIRIKO UDALA*

**BIZKAIA**

Notaritza Ermuan	171296
KIUB	174585
Lan Bulegoa Ermuan	176148
Udaltzaingoa Ermuan	170335
Udaltzaingoa Eibarren	111525
Sagazde	176322
SOS Deiak	088
Taxiak Ermuan	170396
Taxiak Eibarren	113071
I.B.I.	118444
Aireportua Sondikan	94-4531350
Aireportua Hondarrabian	643464
Aireportua Forondan	945-273300
Suhiltzaileak Durangon	94-6810931
Debegesa	112347
El Correo Español Eibarren	116069
El Diario Vasco Eibarren	110846
Egin Eibarren	118421
Eibar Press	116977
Euskal Telebista	94-6816600
Radio Estudio	114141
Onda Cero	111521
Radio Euskadi	94-4420800